



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Herri Administrazioetan Hizkuntza
Normalizatze Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Normalización Lingüística de las
Administraciones Públicas

Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa integratzeko Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari baimena ematea helburu duen lege-proiektuaren gaineko Txostena

Izenburuan aipatutako lege-proiektuaren egitasmoaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze Zuzendaritzan, 2020ko martxoaren 30ean, Hezkuntza Saileko Araubide Bereziko Irakaskuntzarako Zerbitzuak igorrita, proposamenari buruzko derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Aurretik ere, 2019ko azaroaren 6an, lege-proiektu honen gaineko txostena eskatu zitzaigun eta, eskaerari erantzunez, azaroaren 11n gure lehen txostena igorri genuen.

Lehen eskaera hori, xedapen orokorrak emateko prozeduraren baitan kokatzen zen.

Lege-proiektuaren edukia aztertuta ikusi genuen bertan jasotzen zen gauza bakarra zela, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean sartzeko, Hezkuntza Administrazioari baimena ematea Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko.

Arau proposamenean balizko hitzarmen horren edukiari buruzko aipamenik ez zegoenez, ondorioztatu genuen lege-proiektu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Oraingo honetan, xedapen-proiektuaren edukian txertatzen ez bada ere, balizko hitzarmenaren edukiari buruzko gure iritzia eskatzen zaigu; zehazki, ikastetxearen lanpostuei esleitu beharreko hizkuntza eskakizunei eta ezarri beharreko derrigortasun datei buruzkoa.

Beraz, aurretik igorritakotik aldentuz, honako txosten honek Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 artikuluan eta, horren garapenean emandako Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatze prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa hartzen du oinarri.

Lege-proiektua aztertuta ondorioztatzen da espediente hau ez dagoela orain eskatzen zaigun txostenaren menpe; lege-proiektuaren eduki bakarra da, aurretik esan dugun bezala, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean sartzeko Hezkuntza Administrazioari baimena ematea Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko.





Arau proposamenak ez du balizko hitzarmen horren edukirik jasotzen; bertan ez dago lanpostu zerrendari, lanpostuen hizkuntza eskakizunei, horien derrigortasun datei, irakas-gaietan eskainiko diren hizkuntza ereduiei edota irakaslegoaren euskalduntze prozesuari buruzko inolako aipamenik.

Hala ere, espedientearen baitan igorri diren gainerako dokumentuak aztertuta, ikus dezakegu horietan bai jasotzen dela Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren txostenera eraman beharko dela integrazio horren eraginpeko langileentzat lanpostu zerrendaren proposamena.

Halaber, zintzilikatutako memoria ekonomikoan hizkuntza-eskakizunak aplikatzeko proposamen bat agertzen da eta, aintzat harturik eskuartean dugun prozedurak duen izaera berezia, interesgarria iruditu zaigu gure iritzia ematea, hitzarmenaren edukiak lantzerakoan lagungarria izan daitekeelakoan.

Aipatutako memoria horretan jasotzen da ikastetxeko ikasle gehienak "D" ereduan ikasitakoak direla eta gainerakoen artean ere "B" ereduan ikasitakoak direla nagusi; ezaugarri hori oinarri harturik, hizkuntza proiektu baten lan ildoak zehazten dira:

Euskarak, komunikazio hizkuntza gisa, gora egin behar du ikasleen artean, eta ikastetxeak harkorra izan behar du egoera honekin, ahaztu gabe, ikastetxe publiko gisa, erabilera eta hedapena sustatzeko duen betebeharra.

Beraz, euskararen erabilera normalizatzen laguntzeko neurri hauen arabera lan egiten hastea planteatzen da:

- Irakasle kontratazio berri guztietan Hezkuntzako 2.HE (C1 maila) edo baliokidea eskatzea.
- Egungo irakasleen euskalduntzea bultzatzea.
- Irakasle elebidunak dituzten irakasgaietan euskarazko eskaintza zabaltzen hastea.
- Banakako eskolak ikaslearen eta irakaslearen artean modu naturalean ezartzen den hizkuntzan egitea.
- Ikastetxe osoan euskararen erabilera bultzatzea, ahoz zein idatziz.
- Ikastetxeko agiri guztietan euskararen erabilera bultzatzea, batez ere gurasoei zuzendutakoetan eta sortzen den publizitate guztian.

Horiek horrela, memoria ekonomiko horretan eta bere I. eranskinean planteatzen da Jose Uruñuela kontserbatorioko irakasle lanpostu guztiei Hezkuntzako 2.HE (C1 maila) eta gainerako lanpostuei Administrazioako 2.HE (B2 maila) esleitu behar zaizkiela.



Halaber, eta ikusita 18 langile transferigarriak izan daitezkeela eta haien eskubideak ahalik eta hoberen errespetatze aldera honako hau proposatzen dute:

Langile horien transferentzia gertatuko balitz, beren lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko maila bakarra falta zaien langileei 3 urteko epea ematea egiaztatu dezaten eta maila bat baino gehiago falta zaizkien langileei 6 urtekoa. Halaber, adierazten dute langileek ezin izango dutela adinagatiko salbuespenik eskatu.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera **Zuzendaritza honek begi onez ikusten ditu euskararen normalizaziorako proposatzen diren neurri orokorrak.**

Lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizunen esleipenari eta derrigortasun daten ezarpenari buruzko proposamenei dagokienez:

- a) Hizkuntza eskakizunen esleipenari dagokionez, lanpostu batzuen ezaugarri zehatzak falta bazaigu ere, egokiak izan daitezkeela iruditzen zaigu.
- b) Adinagatiko salbuespenak baliatzearen inguruan:
 - Irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen du bere 12. artikuluan Hezkuntzako 1. HE esleituta duten lanpostuetan besterik ezingo dela salbuespen hau baliatu; kontuan harturik planteatzen zaigun proposamen honetan irakaspostu guztiak Hezkuntzako 2.HE edukiko luketela esleituta, ez litzateke inolako aukerarik egongo salbuespena eskatzeko.
 - Gainerako lanpostuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuko 42. artikulua arabera, salbuespen hau baliatu ahal izateko langilea bere lanpostuaren jabe izan behar du; jasotako informazioaren arabera ulertu dugu ez dela horrelakorik aurreikusten; aldiz, langile finko bihurtuko balira nekez ukatu ahal izango zitzaizen salbuespenaz baliatzea egunean indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetz gero.
- c) Derrigortasun daten ezarpenaren inguruan:
 - Egokia iruditzen zaigu epe batzuk aurreikustea langile bakoitzak bere lanpostuari dagokion hizkuntza maila egiaztatu dezan eta horretarako kontuan hartzea zein den bere gaur egungo euskara ezagutza maila.
 - Halaber, komenigarria litzateke bide hori egiteko prestakuntza planifikazioa abiatzea.



- Halere, derrigortasun daten geroratzeak berarekin ekar dezake, langilegoaren gora-beherak tarteko, ordezkapenak egiterakoan kontratazio berriek euskara ezagutzarik ez bermatzea (derrigortasun data aurreratu ezean ez da lanpostuaren baldintza bihurtzen); egoera hauek gerta daitezke bai tarte laburreko ordezkapenetan zein langileen behin-betiko batak ordezkatzekoan.
- Hori horrela, gure gomendioa da baloratzea ea bideragarria ikusten den lanpostu guztietan igarotako derrigortasun datak ezartzea (ordezkapenetan euskara gaitasuna bermatzeko) eta, aldi berean, beren lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten langileekin aipatutako epe eta prestakuntza planifikazioa abiatzea.

Edonola ere, esandako esaten dugu, baina kontuan hartuta behin betiko lanpostu zerrendaren proposamena egiten denean Zuzendaritza honek dagokion aginduzko txostena egin beharko duela.

Hauxe da izenpetzen duenak ematen duen txostena.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 24an.

Joseba Lozano Santos

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria